

EUSKARA PROBA B2

ULERMENA

1. **ariketa:** irakurri testua eta aukeratu erantzun zuzena. Idatzi taulan.

Top 10

Donostiako Kontxako hondartzari Europako hondartza onenaren saria edo aitortza eman dio Tripadvisor-ek, eta mundu mailan seigarren postua lortu du, gainera. Aitzitik, ez du lehenengo urtea titulu horren defentsan. Jendearen bozketan oinarritzen da sailkapen hau, eta, ondorioz, oso ikuspuntu desberdinetatik hartutako erabakia dela ulertu behar genuke: edertasuna, inguruan nola txertatzen den... Hala ere, ziur eguraldia eta uraren epela ez direla baloratu, bestela jai izango genuke Euskal Herriko hondartzetan.

Albistea komentatu eta ondokoak zera bota dit ordea: *"Ba, ez da hainbesterako"*. Betiko euskaldunon aitzakia. Ez gara gai onartzeko ondoan dugunaren balioa, beti gutxietsi behar dugu hurkoa. Gure lankide bat abesten iaioa da eta arrakasta izaten hasi da azkenaldian kontzertuak emanez; *"bada aurrekoan afaria izan genuen eta ez zion desafinatzeari utzi gau guztian!"* Lagun baten lehengusua nahiko ondo ibiltzen da korrika edo bizikletan; *"nik ere egingo nuke, entrenatzen duen guztiarekin..."* Bekaizkeria ote? Bizilagunaren arrakasta ezin irentsi? Edo soilik kostatzen zaigu gertukoaren balore onak onartzea?

Maiz aipatzen dugu, batez ere orain urruneko bidaiak egitea errazagoa den honetan, gutariko askok hobeki ezagutzen ditugula Tailandiako hainbat txoko, gure probintzietako bertakoak baino, baina ea zein den nahikoa ausarta, udako oporren ostean, batak Ipar Ameriketako mendebaldeko kostatik egin duen hilabeteko esperientzia kontatzeari uzten dionean onartzeko ikaragarri ondo pasa duela maila apalagoko bidaia bat eginez Maule ondoko herrixka batean, edo Arabako lautadako bideetan barrena. Naturalki, igandero disfrutatu dezakegun zerbaitek xarma gal lezake nolabait, eta milaka kilometro eta eurotara dagoen

paisaiak hobe du gastatutako dirua merezi, alperrik bota badugu barre egingo digute eta. Urrutiko intxaurrak hamalau.

Txinako arroz-soroetan barrena konturatu nintzen Leintz Gatzagatik sekula pasatu gabea nintzela, eta horrek barne hausnarketarako tartea eman zidan. Ez dut esan nahi mundua ezagutu behar ez denik, inondik inora, aberastasun ikaragarria ekartzen baitigu horrek. Baina agian gure ingurua saltzen abilagoak izan beharko genuke. Badakit, bai, turismoak hainbat arazo ekar ditzakeela eta ekarri dituela, baina neurrian, hamaika txoko ditu gure herriak gozatzeko, eta ez soilik Tripadvisorrek hala sailkatzen dituelako, baizik eta norberak ateratzen dion etekinagatik. Nafarroako Erriberako etxe zahar hura ederra izan daiteke irakurketarako, eta Bilboko alde zaharreko hori, aldiz, paregabea inguruko giroaz gozatzeko. Momentu, pertsona eta toki bakoitzak zerbait ematen digu, eta horretaz gozaten ikasi beharko genuke, horri eman bost izar, eta astero- astero gure esperientzien top 10 hori aldatu, zerbaitek aurrekoa ordeztu eta hobetu duelako.

Aitzol Elizaran/ 2018-02-25

1. Zer dio Donostiako Kontxa hondartzaz?

- a. Norbaitek proposatu eta lehenengoan sartu da munduko hoberenen sailkapenean.
- b. Jendeak aukeratu du zeini eman saria, zenbait gauza kontuan hartu gabe.
- c. Inguruko hondartzetatik iristeko errazena delako aukeratu dute.

2. Idazlearen arabera, zein da euskaldunon joera?

- a. Geurea goraiatzeko dugu, jo eta ke.
- b. Geurea baloratu beharrean, besteari beti hobe iruditzen zaigu.
- c. Ez dugu erraz baloratzen bertakoa.

3. Zer iruditzen zaio gaur egungo bidaiatzeko modua?

- a. Gero eta errazagoa denez, hoberena urruneko bidaiak egitea dela iruditzen zaio.
- b. Lotsa ere ematen du zenbaitetan hurbileko bidaiak txikiak aipatzeak.
- c. Beti merezi du dirua gastatzea, bidaiatzeko bada.

4. Zerk eragin zion bidaiei buruzko hausnarketa?

- a. Leintz Gatzagako aspaldiko lagun bat Txinan topatzeak.
- b. Leintz Gatzagari buruzko artikulu batek.
- c. Hurbileko zenbait leku ez zituela ezagutzen ohartzeak.

5. Zer ekarri dio bidaiatzeak?

- a. Hausnartzen ikasteko aukera.
- b. Ikusi eta ikasteko bidea.
- c. Dirua irabazteko modua.

6. Zer dio geurea saltzeaz?

- a. Beldurra ematen diotela turismoak sortzen dituen arazoek.
- b. Gaizki saldu dela gure ingurua eta ondorioz zenbait txokoz gozatzea zaila bihurtu dela.
- c. Aisialdia gozatzeko toki onak daudela gurean.

7. Zein dira harentzat planik hoberenak?

- a. Tripavisorrek bost izarrekin proposatzen dituenak.
- b. Bat-batean sortzen direnak.
- c. Norberari zerbait ematen diotenak.

Erantzunak:

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| B | C | B | C | B | C | C |

2. ariketa: irakurri testua eta aukeratu esaldi egokia hutsuneetarako. Hurrengo orrian dituzu esaldiak. Idatzi dagokion zenbakia taulan.

Kontziliazioa sustatzen Gipuzkoako enpresetan

Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Etorkizuna Eraikiz* programaren bidez, ordu aldaketak, prestakuntza, antolaketa-moldaketak... mota guztietako neurriekin probak egiten ari dira Gipuzkoako enpresa

ugaritan,(1)..... . Esperimentazio prozesu honetatik ateratzen diren ondorioak eraginkorrak eta arrakastatsuak badira,(2)..... .

Hain zuen ere, *Etorkizuna Eraikiz*, denon artean Gipuzkoaren etorkizuna eraikitzea xede duen foru egitasmoak, kontziliazioaren eta berdintasunaren arloko 20 esperientzia pilotu jarri ditu jada martxan lurraldeko enpresetan, eta beste hamar jarriko ditu aurki. Guztira, esperimentazio prozesuan 2.500 enpresa ari dira parte hartzen, eta,(3)..... . Enpresa horiek prozesua gertutik jarraitzen ari dira.

Emaitza onak

Esperientzia pilotu bakoitza parte hartzen ari den enpresa bakoitzaren errealitate eta beharrei egokitzen da eta helburua da parte hartzaileak beste enpresentzako erreferentzia bihurtzea. Horrela, esperientzia pilotuei esker enpresetan orain arte lortu diren emaitzak azpimarragarriak dira. Esaterako, kasu batean, %9 murriztea lortu da gizonen eta emakumeen arteko soldata arraila, (4)..... .

Gizonezkoek kontziliazio neurriak gehiago erabiltzea eta enpresa barneko soldata sistemak aldatzea dira erronkak,(7)..... . Horretarako, *Etorkizuna Eraikiz* programak informazioa, aholkuak eta baliabideak eskaintzen dizkie.

.....(6)..... , berdintasunaren eta kontziliazioaren esparruan enpresa horiek dituzten gabeziak antzemateko, eta, horrela, bakoitzari hobekien egokitzen zaizkion proiektu pilotuak proposatzeko.

Atzemandako gabeziei aurre egiteko, enpresen kudeaketa integrala (laneko antolaketa eta denborak, kudeaketa aurreratuen sistemak, eta abar) nahiz sail zehatz batzuen zereginak kontuan hartzen dituzten neurriak hartzen ari dira.

Helburuak dira lan giroa eta enpresako langileen ongizatea hobetzea, eta emakumeen partaidetza sustatzea. Horrela, kontziliazio alorreko neurri berriei balio emateko eta horiek ezagutarazteko

ahaleginetan ari dira, lan giroa hobetzeko eta enpresen produktibitatea gehitzeko ardatz gisa hartuta:(7).....

Horrez gain, enpresa kulturaren kudeaketa garatzen ari dira, beharrezkoa baita berdintasunaren eta kontziliazioaren terminoak enpresa kulturaren sartzea, balio erantsi eta bereizgarri gisa.

Etorkizuneko inbertsioa

Kontziliazioa etorkizuneko inbertsioa da Gipuzkoako enpresentzat: ia %70ek dute iritzi hori, 2016an egindako inkesta batean jasotako datuen arabera.

Inkestaren helburua zen jakitea Gipuzkoako enpresetan zertan den lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko egitasmoa. Pertzepzio eta jarreraren atalean, enpresen %85ek uste dute sexua ez dela aldagai garrantzitsua zuzendaritza taldeen funtzionamendu onari begira. Halaber, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko pertzepzioak datu hau eman du:**(8)**..... .

Lortutako erantzun gehienen arabera, kontziliazioaren helburu nagusia da guztiok bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egin ahal izatea (%69). Kontziliazio neurrien multzoari erreparatuta, horietakoren bat ezarri behar izanez gero lanorduen malgutasunera joko lukete nagusiki (%71). Neurri txikiago batean, enpresen %43 ados egongo lirateke lanaldi malgutasunera jotzearekin.

Beraz, enpresek eta langileek gaiari ematen dioten garrantzia ikusita, Etorkizuna Eraikitzeke esperientzia pilotuan badute non eragin.

Berria, 2018ko irailaren 15a (moldatua)

Txertatu hitz multzo hauek egunkariko testuan:

- a) gainera, lurraldeko beste 380 enpresaren interesa piztu du
- b) eta helburu horiek lortzeko interesa gero eta handiagoa da Gipuzkoako enpresetan
- c) lanorduak malgutzea, udan lanaldi murriztua izatea, bilera orduak egokitzea, eta abar
- d) kontziliazioaren eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren alorretan eragiteko asmoz
- e) enpresek diote denei eragiten digun gai sozial bat dela (%67)
- f) enpresa gehiagotara hedatzea da helburua
- g) proiektuak prestatzeko, lehendabizi enpresen hasierako diagnostikoa egin zen
- h) eta beste kasu batean, emakumeen presentzia areagotu egin da zuzendaritza karguetan

Erantzunak:

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| D | F | A | H | B | G | C | E |

IDAZMENA

1. Idatzi gutuna laguna konbentzitzeko (125 hitz).

Egoera:

Aspaldi egin zenuen Bilbora joateko plana lagun batekin, eta hura joateko irrikaz dago. Zuk plana aldatu nahi duzu.

Egitekoa:

Idatzi gutuna laguna konbentzitzeko. Honako hauek egin behar dituzu nahitaez:

- plana aldatzeko zergatiak azaldu
- plan berriaren nondik norako interesgarriak azaldu
- konbentzitzen saiatu

2. Idatzi iritzi artikulua auzoko aldizkarirako (125 hitz).

Txakurrak kaleko igogailuetan

Aukeratu egoera hauetako bat eta idatzi auzoko aldizkarian argitaratzeko moduko iritzi-artikulua.

Egoerak:

A. Igogailuan sartzekoan, beste erabiltzaile batzuek kargu hartzen dizute txakurrarekin sartzeagatik.

B. Maiz erabiltzen duzu igogailua eta askotan gertatzen da zurekin batera jendea sartzea txakurrekin.

Egitekoa:

Auzoko aldizkaria aprobetxatu nahi duzu iritzia emateko. Bestiak beste, honako hauek egin ditzakezu:

- azaldu gertaera eta ondorioak
- iritzia eman
- irtenbideak eskatu ala proposatu

AHOZKOA

Bakarrizketa:

Hiru metro koadroko logeladun pisuak eraiki nahi dituzte Bilbon

600 logela eraiki nahi ditu "Erlauntz etxebizitzak" egiten dituen *Haibu* enpresak.

Hiru metro koadratuko logelak

Erlauntzen ereduak logela txiki eta merkeak ditu oinarrian. 2,2 metro luze, 1,2 metro zabal, eta 1,2 metroko altuera: ohea sartzen da justu bertan, eta zutik egoteko aukerarik ere ez dute ematen. Logela pribatuez gain, espazio komunak daude: sukaldea, bainugelak eta egongela. Teorian erabilgarriak, baina hainbat informazio eta erreportajetan ikusten dena aintzat hartuta, zalantzan jarri daiteke. Etxebizitzaren prezio garestien aurrean, aldi baterako irtenbidea eskaintzen duela dio Haibuk. Etxebizitza jasangarriak eraikitzen dituela dio, pertsonen duintasunez bizitzea eta aurrezteko aukera ematen dietenak. Bilbokoak 150 eta 200 euro artean egongo dira, tamainaren arabera.

Haibuk bezero mota bat bilatzen du: langile prekarizatu autoktonoa. Prekarizatuak bai, erabat baztertuak ez. Alokatu ahal izateko baldintzak hauek dira: sei urteko erresidentzia; 450 eta 1.500 arteko diru-sarrerak izatea; 22 eta 63 urte arteko adina; eta aurrekari penalik ez izatea.

Bartzelonan debekatutakoa, Bilbon baimendua?

Haibuk erlauntzak ditu Espainiako zenbait hiritan; Sevillan, Madrilen edo Bartzelonan kasu. Katalunian eraikin hauek eztabaida dezente piztu dute eta Bartzelonako Udalak debekatu egin ditu, bizitzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztela argudiatuta. Hala ere, enpresak martxan jarri ditu zenbait erlauntza Kataluniako hiriburuan modu ilegalean.

Bilbon Udalaren baimena duela ziurtatzen die enpresak interesatuei. Bartzelonako egoeraz galdetuta, hango udaletxearen ustelkeriarekin lotu ditu Haibuk jarri dizkieten oztopoak.

Etsai ugari

Etxebizitzaren merkantilizazioan sakontzea eta prekarizatutako pertsonen egoeraz aprobeztatzea leporatu diote askok Haiburi. Otsailean erlauntza pisuen aurkako manifestazioa egin zuten Bartzelonan.

Z. OLEAGA @zoleaga1. Argia, 2019ko maiatzaren 16a

Azaldu

- Zein da *Haiburen* proposamena?
- Zein abantaila ditu logela mota honek, *Haiburen* arabera?
- Nolako bezeroa nahi dute?
- Zergatik debekatu dute Bartzelonan?

Eman iritzia

- Zer alde on eta zer alde txar ikusten diozu etxe mota honi?
 - Biziko al zinateke horrelako batean? Zergatik?
 - Zure ustez, zer harrera izanen dute gure artean? Zergatik?
- Bururatzen zaizu irtenbide hoberik?

Elkarrizketa:

Lana utzi eta alde egin?

Egoera eta egitekoa

Kuadrillako lagun batek 20 urte daramatza lanean, leku berean; lanpostu finkoa dauka, soldata ona eta ordutegi malgua. Urtea hasi denetik, erabat ari da esaten gogogabetuta dagoela eta lana utzi eta atzerrian urte pare bat eginen ote duen...baina zalantza handiak ditu, batik bat eszedentziarako aukerarik ez duelako.

Larunbatean kafea hartzeko hitzordua izanen duzue eta ordurako zuen iritziak prestatuko dituzue: horrelako erabakiaren alde onak eta txarrak, arriskuak, zer baloratu beharko lukeen...

Partekatu zuen iritziak eta adostu zer/nola esan lagunari, erabakia hartzen laguntzeko.

Galdera osagarriak

- Izan al duzue inoiz horrelako pentsamendurik?
- Ezagutzen al duzue lana utzi eta alde egin duenik?
- Zer gertatu beharko litzaizueke horretan pentsatzeko?
- Beste aukerarik bururatzen al zaizue? Bizi-kalitatea hobetzea, aldaketak egitea.....